

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2018ko ekainaren 11n egindako bilkuran, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

Nafarroako Foru Eraentza Berrezarri eta Hobetzeari buruzko Lege Organikoaren 19.1.b) artikulua aitortzen dion legegintza-ekimena erabiliz, María Teresa Sáez Barrao andreak Nafarroako Foru Komunitatean familia gurasobakarrak egiaztatzeari buruzko Foru Lege proposamena aurkeztu du.

Hori horrela, Legebiltzarreko Erregelamenduko 148. artikuluan ezarritakoarekin bat, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, hona

ERABAKIA:

1. Agintzea Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Nafarroako Foru Komunitatean familia gurasobakarrak egiaztatzeari buruzko Foru Lege proposamena.

2. Foru lege proposamen hori Nafarroako Gobernuari igortzea, Erregelamenduko 148. artikuluan ezarritako ondorioetarako.

Iruñean, 2018ko ekainaren 11n

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

## **Foru Lege proposamena, Nafarroako Foru Komunitatean familia gurasobakarrak egiaztatzeari buruzkoa.**

### ZIOEN AZALPENA

Familia gizartearen funtsezko erakundeetako bat da, eta biztanleriaren gehiengoa hazi, hezi eta garatzen den eremua da. Familiak, beren tipologia guztietan, eta haien aldeko politika publikoek, garapen pertsonala eta gizarte kohesioa sortzen dute.

Espainiako Konstituzioaren 39. artikulua xedatzen du botere publikoek familiaren babes sozial, juridiko eta ekonomikoa ziurtatzeko betebeharra dutela, bai eta seme-alabei babes integrala ematekoa ere. Familiaren kontzeptua azken urteetan dibertsifikatzen joan da, Konstituzioaren testuak aipatzen duen babesa aitortu eta bermatuta eduki behar dituzten eredu desberdinak jaso baitira. Familia-moten artean, familia gurasobakarrak aurkitzen ditugu, zeinak nabarmen ugariitu baitira azken urteetan, bai Nafarroako Foru Komunitatean, bai estatu osoan ere. Familia-mota hau, gehienetan, ahuldadeko edo gizarte bazterketarako arriskuko egoeran aurkitzen da. Egoera horrek eragin berezia du emakumeengan eta adingabeengan, bai eta haien zaintzapean dauden mendeko pertsonengan ere, eta larriago bilakatzen da foru administrazio publikoak eta administrazio nazionalak haren izaera berariazkoa aitortzen ez dutelako.

Nafarroako Familia Ugariari buruzko martxoaren 25eko 20/2003 Foru Legearen bitartez familia ugariak izan duten aitortpenetik heldu diren ondorio positiboek inspirazio-iturria izan behar dute lege honetarako.

Foruaren Hobekuntzak 44. artikuluan aitortzen duen bezala, Nafarroako Foru Komunitateak berdintasunerako politiken eta haur, gazte eta hirugarren adinekoen aldeko politiken arloko eskumena dauka. Familiak babesteko estrategia eta politika publiko desberdinak bermatzeko eta haien eraginkortasuna hobetzeko, ezinbestekoa da familia gurasobakarrak beren dibertsitate osoan definitzea eta haien aitortpenetarako bide egokiak ezartzea.

Familia gurasobakarrak presentzia irabazi dute azken urte hauetan, eta gehien hazi diren etxe-motetako bat izatera ere iritsi dira.

Familiaren, haurren eta nerabeen egoerari eta Nafarroako Foru Komunitateko haurren babeserako sistemari buruzko diagnostiko sozialaren arabera —zeina oinarria izan baita Nafarroako Gobernuaren Haurren eta Familien Babeserako II. Plana egiteko—, 8.632 dira beren kargura 18 urtetik beherako seme-alabak dituzten familia gurasobakarrak; familia horiek 18 urtetik beherako adingabeak dituzten etxeen % 12 dira. Familia horiek bihurtu dira bazterketa sozialaren arrisku aipagarriena duten taldeetako bat, dela enplegua lortzearekin (soldaten arrakalarekin hertsiki lotutakoak) edo lana eta familia bateragarri egitearekin lotutako arazoengatik, dela kolektibo honen beharritan erantzuteko ezinbestekoak diren zerbitzu publikoetara sartzeko bermatzen duten politikak falta izateagatik. Foru lege honek sustatzen duen aitortpenak aukera emanen du aurrera egiteko adingabeen, mendekotasuna dutenen eta emakumeen babesean.

Foru lege honek beste autonomia erkidego batzuetan egin diren aurrerapenak jasotzen ditu; bereziki, Valentziako Erkidegoan Consellaren azaroaren 22ko 179/2013 Dekretuaren bidez gauzatutakoa —dekretu horrek, izan ere, familia gurasobakarraren izaeraren aitortpena arautzen du Valentziako Erkidegorako— eta Kataluniako Erkidegoko Familiei Laguntzeko uztailearen 4ko 18/2003 Legean jasotakoa. Egiazki eraginkorra izateko, familia gurasobakarraren aitortpenak erantzun egin behar die haiek direla-eta aipagai ditugun kasu desberdinei; izan ere, gutxienez ere bi mota desberdin aurkitzen ditugu: familia-osaera zehatz bati erantzuten diotenak eta, egoera zehatz baten arabera, bazterketa-egoeran edo bazterketa pairatzeko arriskuan egon daitezkeenak, familia gurasobakarrek bizi ditzaketen antzekoak.

Horretarako, foru lege honek bi familia-mota bereizten ditu. Lehenbizi, guraso bakarra duten familia gurasobakarrak, horretarako arrazoiak zein diren ere (familia horren jatorrian hartutako erabaki bat, heriotza, desagertzea, guraso-ahala galtzea eta abar). Eta bigarrenik, “guraso bakarreko egoera”n dauden familiak, seme-alabek eta bi gurasoek osatuak, baina une jakin batzuetan familia gurasobakarrek dauzkaten antzeko ahuldade-baldintzetan egon daitezkeenak. Lege honek kasu horiek zein diren zehazten du.

## **I. KAPITULUA**

### **Xedapen orokorrak**

#### **1. artikulua.** Legearen xedea.

1. Foru lege honen helburua da zehaztea zein baldintza bete beharko diren familia gurasobakarraren izaera aitortzeko edo guraso bakarreko egoeran dagoen familiaren izaera aitortzeko.

2. Behin hori zehazturik, izaera horri buruzko egiaztagiriak emateko eta berritzeko prozedurak arautuko dira.

3. Dokumentazioa familia osatzen duten pertsona bakoitzarentzat emanen da, eta Nafarroako Foru Komunitate osoan izanen du balioa.

#### **2. artikulua.** Aplikazio-eremua.

Foru lege honetako xedapenak nafarrak diren edo Foru Komunitatean bizi diren familia guztiei aplikatuko zaizkie, baldin eta legez ezarritako betebeharrak betetzen badituzte.

#### **3. artikulua.** Familia gurasobakarraren eta guraso bakarreko egoeran dagoen familiaren kontzeptuak.

1. “Familia gurasobakar”tzat jotzen da honako kasu hauetakoren bat aitortua duena:

- a) Pertsona batek edo haren ondorengoek osatuta dagoena, Erregistro Zibilean izena emanda badago.
- b) Alargun batek edo antzeko egoeran dagoen pertsona batek eta horrek hildako pertsonarekin izandako ondorengoek osatuta dagoena.
- c) Pertsona batek eta haren ondorengoek osatuta dagoena, baldin eta guraso-ahala modu eskusiboan badu.
- d) Pertsona batek eta horrek adopzioan edo harreran dauzkan adingabeek osatuta dagoena.

2. “Guraso bakarreko egoeran dagoen familia”tzat jotzen da honako kasu hauetakoren bat aitortua duena:

- a) Gurasoetako batek seme-alaben zaintza eta jagoletza modu eskusiboan duen familia.
- b) Familia bat non seme-alabak dituen pertsonak beste gurasoengandik genero-indarkeria pairatu duen, Emakumeen Kontrako Indarkeriari Aurre Egiteko apirilaren 10eko 14/2015 Foru Legean ezarritakoari jarraituz.
- c) Familia bat non elkarrekin bizi diren gurasoetako bat urtebetez edo denbora gehiagoz askatasun-gabetuta edo ospitaleratuta dagoen. Kasu horretan guraso bakarreko egoeran dagoen familia-unitatea osatuko dute ospitaleratuta edo askatasun-gabetuta ez dagoen pertsonak eta seme-alabek.

d) Familia bat non elkarrekin bizi diren gurasoetako batek Gizarte Segurantzaren Institutu Nazionalak aitortutako mendekotasunaren 3. gradua edo baliaezintasun handia duen. Kasu horretan, guraso bakarreko egoeran dagoen familia-unitatea osatuko dute mendekotasuneko egoeran ez dagoen edo baliaezintasun handia ez duen pertsonak eta seme-alabek.

e) Familia bat non gurasoei zaintza eta jagoletza partekatua aitortu zaien, kontuan hartuta, aitortu ahal zaizkien onurei dagokienez, horiek % 50na jasoko dituztela.

3. Inongo kasutan ere ezin izanen du familia gurasobakarraren titularen onuradunaren izaera lortu alargun batek edo horren parekidea den egoeran dagoen batek, baldin eta epai irmoz zigortu bada giza hilketaren dolozko delitu batengatik, hilketa horren biktima ondorengoak partekatzen zitueneko pertsona (bikotea edo bikote ohia) edo harekin antzeko afektibitate-harreman baten bidez lotutako beste pertsona bat izan denean.

**4. artikulua.** Familia gurasobakarraren edo guraso bakarreko egoeran dagoen familiaren egiaztagiria lortzeko baldintzak eta betekizunak

1. Familia gurasobakarraren edo guraso bakarreko egoeran dagoen familiaren izaera aitortzeko edo mantentzeko seme-alabek bete beharreko baldintzak.

a) Honako kasu hauetakoren batean egotea: 1. 21 urtetik beherakoa izatea. Muga hori 26 urtera arte luzatuko da lanpostu bat lortzea xede duten ikasketak egiten ari direnean. 2. % 33ko edo % 33tik gorako desgaitasun aitortua, mendekotasunaren hirugarren gradua, erabateko ezintasun iraunkorra edo baliaezintasun handia izatea, adina edozein dela ere.

b) Gurasoarekin bizitzea. Ulertzen da bi urtez edo denbora laburrago batez aldi baterako berezita egoteak, ikasketak egiteko, lan-arrazoiengatik, tratamendu mediko batengatik, errehabilitazioagatik edo antzeko arrazoiengatik —horren barne direla ezinbesteko kasuak, gurasoaren edo seme-alaben askatasun-gabetzea edo adingabeen erantzukizun penala arautzen duen araudiaren araberako barneratzea—, ez duela hausten gurasoaren eta seme-alaben arteko bizikidetasuna, nahiz eta berezita egote hori atzerrira aldi baterako joatearen ondorioa izan.

c) Ekonomikoki gurasoaren mendekoa izatea. Mendekotasun ekonomikoa dagoela jotzen da seme-alabek, bakoitzak bere aldetik, ez dutenean lortzen lan-etekinen bidezko diru-sarreretan, urtebeteko kontaktetan, OAEAParen % 100, aparteko soldatak barne. Ez dira kontatuko zurtasun-pentsioetatik heldutako diru-sarrerak.

2. Familia gurasobakar batek edo guraso bakarreko egoeran dagoen familia batek bere izaera galduko du honako kasu hauetakoren batean aurkitzen denean:

a) Familia-unitatearen buru egiten duen pertsona ezkontzea edo izatezko unitate bat eratzea, legerian ezarritakoari jarraituz.

b) Familia-unitatearen buru egiten duen pertsonak ez betetzea lege honetan ezarritako baldintzetatik edozein.

## II. KAPITULUA

### Familia gurasobakarraren titulua aitortzeko edo emateko prozedura

**5. artikulua.** Prozeduraren hasiera.

Familia gurasobakarraren titulua aitortzeko edo emateko prozedurak hasiko dira legezko gaitasuna duen eta familia-unitatea osatzen duen edozein pertsonak eskatuta.

**6. artikulua.** Eskaera-eredua.

Eskaerak egin ahalko dira familiaren arloan eskumenak dauzkan departamentuak ezarri eta interesdunen eskura jarriko dituen inprimaki normalizatuak erabiliz.

**7. artikulua.** 3. eta 4. artikuluetan ezarritako familia-egoeraren arabera aurkeztu beharreko dokumentazio orokorra.

1. Dokumentazio orokorra:

a) Eskaera-orria, behar den moduan beteta.

b) Datu pertsonalen egiaztagiria:

I. Nazionalitate espainiarra duten pertsonak: eskatzailearen eta familia-unitatea osatzen duten 14 urtetik gorako seme-alaben nortasun agiri nazionalaren (NAN) kopia konpultsatua, organo kudeatzaileari hura egiaztatzeko baimena ematen ez zaionean.

II. Atzerritarrak: atzerritarraren identifikazio-zenbakiaren (AIZ) kopia konpultsatua, edo hura kontsultatzeko baimena, edo familia-unitatea osatzen duten pertsona guztien pasaportearen edo Erregistro Zibilaren hitzez hitzeko jaiotza-ziurtagiria. Aurkeztutako dokumentu guztiek indarrean egon beharko dute.

III. Familia-liburuaren edo -liburuaren kopia konpultsatua —liburu osoenak—, edo adopzioari, tutoretzari edo familia-harrerari buruzko notario-akta edo ebazpen administratiboa.

IV. Familia-unitatea osatzen duen pertsonen erroldatzeari buruzko ziurtagiria, organo kudeatzaileari hura egiaztatzeko baimena ematen ez zaionean.

V. Erantzukizunpeko adierazpena, seme-alabek OAEAPtik gorako diru-sarrerak ez jasotzeari buruzkoa, aparteko ordainsariak barne.

2. Aurkeztu beharreko dokumentazioa, aurreko puntuan adierazitako dokumentazio orokorraz gainerakoa.

3.1 artikuluan ezarritako familia-egoeren arabera, arestian aipatutako dokumentazio orokorraz gainera:

a) Seme-alabak soilik guraso bakarrarekin Erregistro Zibilean inskribatuta egoteari buruzkoa. - Erantzukizunpeko adierazpena, bikote-egonkor bat ez osatzeari edo beste pertsona batekin ezkondu ez izateari buruzkoa.

b) Alargunak edo antzeko egoeran dagoen pertsona batek seme-alabekin osatutakoa: - Erantzukizunpeko adierazpena, bikote-egonkor bat (edo izatezko bikote bat) ez osatzeari edo beste pertsona batekin ezkondu ez izateari buruzkoa. - Hildako aurreko ahaidearen heriotza-ziurtagiria, familia-liburuan jasota ez badago.

c) Pertsona batek adingabe bat edo gehiago harreraren hartzen dueneko kasua, dagokion ebazpen administratibo edo judizialaren bitartez, urtebeterako edo gehiagorako, edo larrialdiko harrerako familiaren izaera edukitzeko kasua. - Erantzukizunpeko adierazpena, bikote-egonkor bat ez osatzeari edo beste pertsona batekin ezkondu ez izateari buruzkoa. - Harrerari buruzko ebazpen administratibo edo judiziala, organo eskudunak emana, edo larrialdiko harrerako familia izateari buruzko ziurtagiria, haurren arloko zuzendaritza orokor eskudunak emana. Dokumentazio hori ez da beharrezkoa izanen Nafarroako Foru Komunitateko harrerako familien kasuan. - Erantzukizunpeko adierazpena honako honi buruzkoa: Guraso-ahalaren eskusibotasuna egiaztatzen duen epaia.

3.2 artikuluan jasotako familia-egoeren arabera, arestian aipatutako dokumentazio orokorraz gainera:

a) Aitak edo amak seme-alaben zaintza edo jagoletza eskusiboa edo erabatekoa edukitzeari buruzkoa: - Erantzukizunpeko adierazpena, bikote-egonkor bat ez osatzeari edo beste pertsona batekin ezkondu ez izateari buruzkoa.

b) Familia bat non seme-alabak bere kargura dituen amak genero-indarkeria pairatu duen, Emakumeen Kontrako Indarkeriari Aurre Egiteko apirilaren 10eko 14/2015 Foru Legean ezarritakoari jarraituz. - Emakumeen Kontrako Indarkeriari Aurre Egiteko Foru Legearen 4. artikuluan aitortutako arauen arabera egiaztatzea; arau horiei, salbuespenik gabe, honako hauen txosten teknikoak gehituko zaizkie 1. Autonomia erkidegoko edo tokiko administrazio publikoaren oinarritzako laguntzako gizarte zerbitzuak. 2. Autonomia erkidegoko edo tokiko administrazio publikoko osasun zerbitzuak. 3. Osasun mentaleko zentroak. 4. Autonomia erkidegoko edo tokiko administrazio publikoko harrera zerbitzuak. 5. Arreta integralerako profesionalak dituzten emakumeentzako laguntzarako udal zerbitzuak. 6. Laneko eta Gizarte Segurantzako Ikuskatzailak.

c) Elkarrekin bizi diren gurasoetako bat askatasun-gabetuta edo ospitaleratuta dagoenean urtebetez edo denbora gehiagoz: - Espetxean edo ospitalean egoteari buruzko ziurtagiria.

d) Elkarrekin bizi diren gurasoetako batek 3. graduko mendekotasuna edo baliaezintasun handia duenean. - Gizarte Segurantzako Institutu Nazionalaren baliaezintasun handiaren ziurtagiria edo mendekotasunaren 3. gradua aitortzen duen ebazpen administratiboa, autonomia pertsonala sustatzearen edo mendekotasunerako laguntzaren arloan eskuduna den departamentuak emana.

e) Gurasoen egoera "zaintza partekatua"rena denean. - Egoera hori egiaztatzen duen epai judiziala.

3. 4. artikuluan ezarritako familia-egoeraren arabera aurkeztu beharreko dokumentazio berariazkoa.

a) Ezarritako adina luzatzea, ikasketak direla eta. - Arrazoi horrengatik titulu horri eutsi nahi dioten pertsonak egiten ari diren ikasketei buruzko egiaztatzea.

b) % 33ko desgaitasun-maila edo handiagoa. - Desgaitasun-mailari buruzko ebazpena, Nafarroako Foru Komunitateko dibertsitate funtzionalaren arloko departamentu eskudunak emana. Maila eta iraungitze-data agertu beharko da, kasua bada, edo hari buruz kontsulta egiteko baimena.

c) 3. mailako mendekotasuna edo baliaezintasun handia. - Gizarte Segurantzako Institutu Nazionalaren baliaezintasun handiaren ziurtagiria edo mendekotasunaren 3. gradua aitortzen duen ebazpen administratiboa, autonomia pertsonala sustatzearen edo mendekotasunerako laguntzaren arloan eskuduna den departamentuak emana.

d) Lan egiteko ezintasunaren aitortzea. - Lan egiteko ezintasunari buruzko ebazpena, Gizarte Segurantzaren Institutu Nazionalak emana. Maila eta iraungitze-data agertu beharko da, kasua bada, edo hari buruz kontsulta egiteko baimena.

**8. artikulua.** Non aurkeztu.

Familia gurasobakarraren titulua emateko, berritzeko edo aldatzeko eskaerak, lege honen 7. artikuluan ezarritako gainerako dokumentazioarekin batera, Nafarroako Foru Komunitateko edo Nafarroako toki entitateetako erregistro-arloko laguntzarako bulegoetan aurkeztuko dira, edo eskaerak aurkezteari begira, oro har, Administrazio Publikoaren Administrazio Prozedura Erkideari buruzko urriaren 1eko 39/2015 Legearen 16.4 artikuluan aitortutako tokietatik edozeinetan.

Halaber, modu telematikoan aurkeztu ahalko dira, Administrazio Publikoaren Administrazio Prozedura Erkideari buruzko urriaren 1eko 39/2015 Legearen 14. artikuluan ezarritako prozedurari jarraituz.

**9. artikulua.** Espedientea izapidetzea.

Familiaren arloko departamentu eskudunak, ezartzen den prozeduraren bitartez, egiaztatuko du aurkeztutako dokumentazioa foru lege honen 7. artikuluan exigitutakoa dela.

Eskaerak ez baditu exigitutako betekizunak betetzen edo ez bazaio lege honen arabera exigitzekoa den dokumentazioa eransten, interesdunari aginduko zaio gehienez 10 eguneko epean akatsa zuzendu dezan edo eskatutako dokumentuak aurkez ditzan. Hala egiten ez badu eskaeran atzera egin duela joko da, aurrez jarduketak artxibatzeko aginduzkoa den ebazpena eman ondoren; ebazpen hori Administrazio Publikoaren Administrazio Prozedura Erkideari buruzko urriaren 1eko 39/2015 Legearen 68. artikuluan ezarritako moduan eman beharko da.

**10. artikulua.** Ebazteko eskumena duten organoak.

Titulua emateko edo ukatzeko edo espedientea artxibatzeko eskumena, kasua bada, familiaren arloan eskuduna den departamentuari esleitzen zaio, eskatzailea erroldatuta dagoen probintziakoari; hori, halere, ez da eragozpena izanen eskumen hori bete dezan, kasua bada goragoko eskumenak bereganatzearen bidez, familiaren arloko eskumena esleituta daukan zuzendaritza nagusiko titularrak.

**11. artikulua.** Ebazteko eta jakinarazteko gehieneko epea.

1. Ebazpen espresua eman eta jakinarazteko gehieneko epea hiru hilabetekoa izanen da, eskaera ebazpena emateko eskuduna den organoaren edozein erregistrotan sartzen den egunetik kontatzen hasita.

2. Aipatutako epean ebazpen espresurik ematen ez den kasuetan, ulertuko da eskaerak administrazio-isiltasunaren bidez baietsi direla.

**12. artikulua.** Titulua eta banakako txartela ematea.

1. Familia gurasobakarraren izaera egiaztatzeko, familia osorako titulu kolektibo bat emanen da, bai eta hura osatzen duten pertsona guztientzako banakako txartel bat ere, foru lege honetan ezarritako ereduak jarraituz.

2. Familia gurasobakarraren titulu kolektiboak honako datu hauek eduki beharko ditu, gutxienez ere:

- a) Titulu zenbakia.
- b) Espediente zenbakia.
- c) Titularraren izen-deiturak eta identifikazio-agiriak.
- d) Seme-alaben izen-deiturak, jaiotza-eguna eta nortasun-agiriaren zenbakia, bai eta aitorenaren onuradunak diren familia-unitateko pertsonen nortasun agiriaren zenbakia ere (halakorik baldin badute).
- e) Familia-unitatearen helbidea.
- f) Titulua zein egunetan eman zen eta, kasua bada, berritzearen eguna.
- g) Tituluaren indarraldia amaitzen den eguna.
- h) Titulua emateko organo eskudunaren sinadura.
- i) Titularraren sinadura.
- j) Nafarroako Foru Komunitatearen zigilu ofiziala.

3. Banakako txartelak haren titularraren izen-deiturak eta artikuluko honen 2. apartatuaren a), g), i) eta j) letretan jasotako datuak jaso beharko ditu.

**13. artikulua.** Eskaera eta eraginaren data.

1. Familia gurasobakarraren tituluaren eskaera edozein unetan egin ahalko da, familia-unitateak hura lortzeko baldintzak betetzen dituen unean.

2. Familia gurasobakarrei emandako onurek eraginak izanen dituzte titulu ofiziala aitortzeko edo berritzeko eskaera aurkezten den egunetik aurrera, ematen den ebazpen administratiboa aitortze edo berritze horren aldekoa bada.

3. Familia gurasobakarraren izaera aitortzen duen tituluak bere eraginak izanen ditu emateak edo berritzeak aipatzen duen aldi osoan, edo familia-unitatea sailkatuta dagoen kategoriatik aldatzea bidezkoa den unera arte edo familia gurasobakarraren aitortpena lortzeko behar diren baldintzak betetzeari uzten zaion unera arte.

4. Behin betiko titulua ematen den bitartean, aldi baterako titulua eman ahalko da, sei hilabeteko gehieneko balioarekin, foru lege honetako eredu 13.2 puntuan zehazten diren eragin eta baldintza berdinekin. Aldi baterako tituluan, gutxienez ere honako datu hauek jaso beharko dira:

- a) Titulu zenbakia.
- b) Espediente zenbakia.
- c) Seme-alaben izen-deiturak, jaiotze-eguna eta nortasun-agiriaren zenbakia, bai eta aitortpenaren onuradunak diren familia-unitateko pertsonen nortasun agiriaren zenbakia ere (halakorik baldin badute).
- d) Familia-unitatearen helbidea.
- e) Tituluaren indarraldia amaitzen den eguna.
- f) Titulua emateko organo eskudunaren sinadura.
- g) Titularraren sinadura.
- h) Nafarroako Foru Komunitatearen zigilu ofiziala.

#### **14. artikulua.** Bidezkoak diren errekurtsoak.

Prozedurari amaiera ematen dion ebazpenaren aurka, zeinak ez baitu bide administratiboa agortzen, gora jotzeko errekurtsoa aurkeztu ahalko da, hilabeteko epean, hierarkikoki gainetik dagoen organoan, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkideari buruzko urriaren 1eko 39/2015 Legearen 112. artikuluan eta ondorengoetan ezarritako baldintzetan.

#### **15. artikulua.** Tituluen indarraldia.

1. Oro har, familia gurasobakarraren tituluaren indarraldia seme edo alaba batek 21 urte betetzen dituen egunak determinatuko du.

2. Familia gurasobakarraren tituluak indarraldi berezia izanen du honako kasu hauetan:

- a) Tituluak ikasketengatik berritzen badira, tituluak bi urteko iraupena izanen du.
- b) Iraupen jakin bat duen harreraren kasuan edo larrialdiko harrerako familiaren kasuan, tituluak iraupen bera izanen du. Hartutako pertsonak 18 urte betetzen dituen bitartean, titulua berritu ahalko da familia-unitate berarekin bizitzen jarraitzen baldin badu. Kasu horretan, tituluak bi urteko indarraldia izanen du.
- c) Generoko indarkeriarengatik emandako tituluaren kasuan, tituluak bost urteko indarraldia izanen du.
- d) Askatasun-gabetuta edo ospitaleratuta egoteko kasuan, titulua eskatu ahalko da lehenengo urte iragan ondoren, eta urtebeteko indarraldia izanen du.
- e) Titulua edo kategoriatik desgaitasun-mailaren, mendekotasun-egoeraren, lanerako ezintasunaren edo baliazintasun handiaren arabera bada, aitortpen bakoitzak ezartzen duen indarraldia izanen du.
- f) Kategoriatik familia-unitatearen diru-sarreraren arabera denean, bi urteko indarraldia izanen du.

#### **16. artikulua.** Tituluak berritzea.

Familia gurasobakarraren titulua berritu edo ezeztatu beharko da haren indarraldia amaitu denean ez ezik, titulua emateko edo hura berritzeko izan ziren baldintzetatik edozein aldatzen denean eta horrek kategoriatik aldatzea bat edo familia gurasobakarraren galera dakarrenean ere. Halaber, berritu edo ezeztatu beharko da seme-alabetako batek familia gurasobakarrekiko kide gisa agertzeko baldintzak betetzeari uzten dionean, nahiz eta horrek berekin ez ekarri sailkatuta dagoen kategoriatik aldatzea edo izaera hori aldatzea.

#### **17. artikulua.** Berritzeko eskaerak.

Eskaerak egiten dira familiaren arloan eskumenak dauzkan departamentuak ezarri eta interesdunen eskura jarriko dituen inprimaki normalizatuetan, honako dokumentazio hau gehituta:

Titulua iraungi ondoren berritzeko kasuan, foru lege honen 7. artikuluan zehaztutako dokumentazioa aurkeztu beharko da, betekizunak betetzen direla egiaztatzeari dagokiona.

Familiaren inguruabarrak edo inguruabar pertsonalak aldatzearen ondoriozko berritzeen edo aldaketen kasuan, aldaketa egiaztatzen duen dokumentazioa aurkeztu beharko da, bai eta kasu jakinaren arabera behar den berariazko dokumentazioa ere.

**18. artikulua.** Titulua desagertzea edo galtzea.

Titulua desagertzen edo galtzen bada, sarrera-erregistroarekin kopia bat eskatu ahal da Nafarroako Foru Komunitateko edo erkidegoko toki entitateetako erregistro-laguntza ematen duen edozein bulegotan, edo, bestela, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkideari buruzko urriaren 1eko 39/2015 Legeak ezarritako bulegoetan. Kasuan kasuko eskaera-inprimakia erabili ahal da, foru lege honetan ezarritako ereduari jarraituz. Espediente administratiboan jasota utzi beharko da titulua ematen den aldi bakoitza.

**19. artikulua.** Komunikatzeko eta dokumentazioa aurkezteko betebeharrak.

Familia gurasobakarraren titulua aitortu zaien familia-unitateetako titularrek familiaren arloan eskuduna den departamentuari komunikatu beharko dizkiote, gertatu eta gehienez ere hiru hilabeteko epean, inguruabar familiarretan edo pertsonaletan gertatzen diren aldaketa guztiak, baldin eta horiek kontuan hartu beharrekoak badira emanda duten titulurako eskubidea aldatzearen edo azkentzearen eraginetarako.

**20. artikulua.** Egiaztapeneko ahalmenak.

Familiaren arloko eskumenak dituen departamentuak edozein unetan egiaztatu ahal du familia gurasobakarraren titulurako eskubidea mantentzen dela egiaztatzen duten inguruabar edo baldintzek bere horretan dirautela, eta tituluaren ezeztatzea ebatzi eta jakinarazi ahal du.

**21. artikulua.** Tituluen bateragarritasunari buruzko araubidea.

Familia gurasobakarraren titulua bateragarria da familia ugariaren tituluarekin, baina titulu horietatik heldu diren mota edo izaera bereko onurak ezin izanen dira metatu, berariazko araudi batek kontrakoa ezartzen ez duen bitartean.

**22. artikulua.** Datu pertsonalak babestea.

Familia gurasobakarraren titulua lortzeko eman behar diren izaera pertsonaleko datuak, lege honetan arautzen direnak, eragin horietarako fitxategi automatizatu batean jasoko dira. Datu horiek Izaera Pertsonaleko Datuak Babesteari buruzko abenduaren 13ko 15/1999 Lege Organikoak eta bera garatzen duen araudiak zehazten duten babesa izanen dute.

### **III. KAPITULUA** **Zehapen-araubidea**

**23. artikulua.** Zehapen araubidea.

1. Foru lege honetan xedaturikoaren arau-hauste arinak hurrengo apartatuan aipatzen diren portaera eta gertaerak dira, iruzurra, errua edo zabarkeria hutsa dagoenean.

Horretarako, familia unitateko edozein kide izanen da erruduna, arau-haustetzat jotzen den portaeraren bat egiten badu.

2. Arau-hausteak arinak, astunak edo oso astunak izan daitezke.

a) Honakoak dira arau-hauste arinak:

1. Organo eskudunari familian gertatzen den edozein aldaketa ez jakinaraztea, titulurako eskubidea aldatu edo iraungitzeko kontuan hartzekoa bada.

2. Familia gurasobakarraren titulua emateko foru lege honetan exigitzen den dokumentazioa organo eskudunari ez aurkeztea.

b) Arau-hauste astunak:

1. Hiru arau-hauste arin egitea zehapen irmoa gertatu denean.

2. Familia gurasobakarraren izaera lortu edo mantentzeko legeak eskatzen diren betebeharrak edo baldintzetan datuak ezkutatu edo gezurrak egitea.

3. Tituluak honek babesturik ez dauden beste pertsona batzuei uztea.

4. Familia gurasobakarraren titulua bidegabeki edo abusuz edukitzea edo erabiltzea.

e) Bi arau-hauste astun edo gehiago egitea, zehapen irmoa gertatuz gero, arau-hauste oso astuna izanen da.

3. Izan litezkeen bestelako erantzukizunak deusetan galarazi gabe, hona hemen aurreko apartatuan aipatzen diren arau-hausteak egiten dituzten pertsoneri ezartzen ahalko zaizkien zehapenak:

a) Arau-hauste arinengatik:

1. Banakako gaztigua, idatziz.

2. Familia gurasobakarraren tituluaren onuradunei dagokien edozein eskubide gehienez ere hilabetez bertan behera uztea.

b) Arau-hauste astunengatik.

1. Familia gurasobakarraren tituluaren onuradunei dagokien edozein eskubide hilabete batetik sei hilabetera bitarte bertan behera uztea.

2. Familia gurasobakarraren tituluaren onuradunei dagokien edozein eskubide sei hilabetetik bi urtera bitarte bertan behera uztea.

c) Arau-hauste oso astunengatik.

1. Familia bakarraren tituluaren onuradunei dagokien edozein eskubide sei hilabetetik bi urte bitarte bertan behera uztea.

2. Onuradun izaera galtzea.

4. Ezarri beharreko zehapenak mailakatzeko, familia gurasobakarraren titulua erabiltzean lorturiko onuraren izaera eta zenbatekoa hartuko da.

**Xedapen gehigarri bakarra.** Familia gurasobakarraren titulua duten familientzako onurak eta abantailak.

Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioak, bere eskumenen esparruan, familia ugariaren titulua duten familiek dauzkaten onura eta abantaila berak ezarriko ditu familia gurasobakarraren titulua duten familientzat. Gainera, onura eta abantailak sustatuko ditu familia gurasobakarraren titulua duten familientzat, bai administrazio publikoen eremuan, bai enpresa pribatuen eremuan ere.

**Xedapen indargabetzaile bakarra.** Arauak indargabetzea.

Indarrak gabe uzten dira foru lege honetan ezarritakoari aurka egiten dioten xedapen guztiak.

**Azken xedapenetan lehena.** Garapena.

Nafarroako Gobernuak Eskubide Sozialetako Departamentuak, zeinak familiaren arloko eskumenak baitaizka, sei hilabeteko epean, foru lege honek ezarritakoak aplikatu eta garatzeko behar diren erregelamendu-xedapenak emanen ditu.

**Azken xedapenetan bigarrena.** Indarra hartzea.

Foru lege honek 2019ko urtarrilaren 1ean hartuko du indarra.